


Astekaria

BARREN elgoi



**IRUDIA-SOINUA
ELEKTROGAILUAK**

ARTEGI

San Frantzisko, 40. 71 74 06 87 ELGO1BAR

NAU DA **Gola sartzelto** **AUKERA MUNDIALA**

FrfrIT:n ff, i7 17P F_Fun 1(Twa J. :-n-F al rfrfn-(7,
r_f (x., F7-nucd7 7fria-n' arr:
r:nr7nf7-an **ARTEGIFT**

(4mIriejm. 7r1re.

SAN PPEIPPN AV7nKo JAIK

EKAINAK, 29, UZTAILAK 1, 2, ETA 3



*Ya.i hafzordeadjaiefaraio
yongifea fuzath nahr' clizue
A'errilar yuzlioi. gai afai eth
ofenon yu.sia'owl izanyo
cfirefcdoan, auzora .fictr,611Ju
zaijezien anbenalzen
zaithz/e, dair2aren 29,
uziailaren 1, 2, eth 3an.*

Arratsaldeko 7etan,
kanpai jotze eta txafliaguak

EKAINAK 29 ASTEZKENA

Goizeko 11 etan,
Meza nagusia eta prozesioa.
Ondoren, auzotarren bazkaria
Egun eta gau osoan zehar,
011oki eta Ziolar trikitilariak
Gauean, bolo tiraldia.

Gaueko 9etan, Bertso Afaria
(Ziarda, Gorrotxategi, Joxe Agirre eta
Loidisaletxe bertsolariekin. Gaijartzaile:
Meabebasterretxea)
Ondoren, Erromeria Errekalde anaiekin.
Gaueko 12etan, Bolo tiraldia.

VZTAILAK 2 LARVNBATA

Arratsaldeko 5etan, umeen jolasak.
Gaueko 12etan,
Gaupasa Imuntzo eta Belokirekin.
Gaueko 11,30etan, bolo jokuak.

VZTAILAK 3 IGANDEA

Goizeko 10,30etan, Meza.
Eguerdiko 12etan, ahari jokua
(Pontxera eta Peñaren ahariekin)
Ondoren, esku pilota partidua.
Arratsaldeko 6etan, Idi demak
(Artadialde Artaso - Belarreta)
Jarraian, Otar baten zozketa.
Egun guztian Zabaleta eta Iker
trikitilariak

eigoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
s. 74 41 12

ARGITARATZAIEA:
Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:
Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:
Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZEO KONTSEILUA:
Ifiaki Arrieta, Antton Bergara,
Edume Bilbao, Rosa Irionclo,
Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PUBUZITATEA:
Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KotAsoRATIAILEAK:
Irati Agirreazaldegi, Itziar
Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,
Myriam Aldazabal, Isabel Ansoló,
Nere Arostegi, Goton Arrieta, Pello
Arrieta, Belen Arrizabaloga, Ainora
Burgaina, Urzi Etxabe, Asier
Etxaniz, Sugar Etxaniz, Fel ix
Etxeberrio, Izaro Etxegibel, Enetz
Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose
Mari Gaidos, Ina Garagarza,
Gotzon Garate, Amaia Gorostiza,
Alfonso Guilló, Maite Iriondo, Ekaitz
Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,
Imanol Larrañaga, Haritz leon,
Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,
Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose
Inazio Sarasua, Oihana Tarragual,
Alain Ukaia, Olga Unzilla, Igar
Vozquez, Ano Vila, Miryam
Villasante, Alaitz Vives, Aitor
Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrariaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E,
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDARUA: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X

dgoiBARRENek ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

ZENBAT BURU



NiftINBAT ABURU

Kiralaz blai

Nori bururatu zitzaion Iehenengo aldiz "berrikuntza ala hil" esaldia? Aldizkari honek, tarteka nere esku jartze duen txoko hau, ez dut zentzugabeko ikerketan galtzerik nahi, baina herrian futbol zelai berri bat dagoela jakin dudanean berau izan da burutik pasa zitzaidan Iehenengo esaldia.

Zoritarrez, ohitura faltagatik eta kirolen bat egiteko kapazitateak gehiegi bizkortu ez ditudalako ez naiz ni Lerungo ospakizunetan aditua. Hala eta guztiz ere, asko poztu nau instalazio berrien abantailak txantxetakoak ez direla jakiteak, nahiz eta uste futbol zelai zaharraren nostalgikoak asko geratuko diren. Gure Lerun, Lerun baita.

Mintxetakoan, futbolaz gain, atletismo eta muskulazioa egiten dira eta aniztasun horrek aukerak zabalduko dizkigula kirola praktikatzekoan ukazina da.

"Mens sana in corpore sano" ikasi genuen txikitan, publizitate itxura duen esaldi honen eskutik, eta ez naiz ni telebistako anuntzioek azaltzen dituzten munduz kanpokoak diruditen gorputz perfektu horietaz ari, ez horixe! guztiok gure bizimodua ekilibrioz aurrera eramaten lagun dezaketen praktika osasungarriez baizik.

Kirola mesedegarria dela ez da gaurko gauza, baina kirola praktikatzeko aukera, zabalkuntza eta jendearen zaletasuna azken urteotakoa da. Eta gaur neska-mutilen aukerek, duela urte batzuetako egoerarekin

zerikusi handirik ez badute ere, onartu beharrekoa da oraindik ere, funtsean prejuizioak, ohiturak eta denbora falta direla medio, emakumeok gizonezkoek baino zailtasun handiagoak ditugulako kirol zaletasun hori aurrera eramateko.

Badakit arlo honetan, beste batzuetan bezalaxe, desberdintasunak gutxitu egin direla, baina zailtasun horiek onartzea aurrerapasuak emateko lagungarriak direla uste dut.


Eta bitartean, zer egin bidean geratu diren belaunaldiekin? Hogei urtekoek zailtasunak badituzte, ni bezalako 40tik gorakook, zer esanik ez! Gure garaiko emakumeek ez dugu hezkuntza fisikoaz, eskolan egin arazten zizkiguten esku eta hanketako ejerzizio aspergarri haiek besterik ezagutzen eta guztioi gaur, zilañezko bandejan iritsi zaigu, urteak pasata, kirola praktikatzeko aukera Polikiroldegiko eta Mintxeta bezalako instalazioetan.

Eta ez da gutxi! Jakin dut muskulazio atalean emakumeak ugari direla eta urte gutxi barru futbola ere andraz beteta ikusiko dugulakoan nago; atletismoko pistetan Mugerza Memorialean emakume bat baino gehiago txapeldun azalduko dela ere bai, noski.

Bakoitzaren balioa demonstratzeko, aukerak zabaldu egin behar dira... Hau ere zure gustuko egoera ote da, irakurle?

Itziar Fernandez Mendizabal

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



• Noizko Mintxetako kirol instalazioetan piszinak?

Udal Kirol Teknikariak esan digunez, haserako proiektuan piszinak aurreikusita bazuden ere, 1997. urtera arte Diputaziotik ez da dirulaguntzarik jasoko. 1997. urtean, berriz, aztertu egin beharko da orduko kirol beharrak zeintzuk diren eta horren arabera erabakia hartuko da.

J XIZ 1

Irakurle bat etorri zaigu Plaza Handiko frontoiko lurra oso labankorra dela esateko. Pilotan jokazen hasi eta tente egoteko demaseko ahaleginak egin behar omen dira. Amaitzeko, dagokionari zerbaitegin dezan eskatzen dio.



TXALOAK

- Ikastolako gurasoak etorri zaizkigu Ikastolako Gurasoen Eguna antolatu zutenak txalotzeko. Benetan ondo pasa omen zuten eta gustura erretiratu omen ziren etxera.
- Nahaste-Borrastean parte hartu zuen kirolari batek ere deitu digu Kimetzeko antolatzaileak txalotzeko. Antolakuntza bikaina izan omen zen eta bide beretik segitzeko animoak eman nahi dizkie.

Zer da solidaritatea?

Taaatariiii! Ekainak 21. Kasu honetan ez nau kornetak esnatu, etxeko despertadoreak baizik. Eskenak. Kotxea hartu eta Donostiarantz. Bidean lagunuen animoak. Donostian eguraldia primerakoa da, lastima, beste zerbaitea etorri naiz. 9,30ak aldera, metro batzuetara, Xabi, Mendarokua, berak ere epaiketa dauka. Fernando agertzen da, berak astelehenean egin zuen egin beharrekoa. Dagoeneko elgoibartar epaituta eta 2 epaiketa atzeraturik. Eta oraindik... zerrenda amaigabea da.

Nire izena entzun eta barrura noa. Parean epailea, idazkaria, fiskala eta Gorka abokatuak. Atzean, lagunak eta familikoak. Haseratik ez dut tribunala onartzen, inor ez delako gai inoren kontzientzia epaitzeko. Sententzia ezberdinak ematen dituzte, intsumisoak osatzen dugun kolektibo sendoa banatu asmoz eta hainbat arrazoiengatik, dagoeneko egon diren epaiketa askotan garbi azaldu denez.

Batzuek insolidariotzat hartzen gaituzte. Ez dute ulertzerik nahi, horregatik kartzelara joan beharra dugula diote. (Orain inhabilitazio kode berriaren ara-

bera). Ez dira beraiek insolidarioak? Nola uler daiteke, urtetik urtera Estatuko aurrekontuetatik gastu sozialaren murrizketa eta gastu militarren igoera etengabea izatea. Ez al da insolidarioa "boluntario" behartuak onartzea edo erabiltzea, milaka lanpostu kenduz? Zer da elkartasuna?

Lutxi Arregi Intsumisioa

Ikastolako 7. mailakoei erantzuna

dazki honen bidez,

BARRENen 68. zenbakian azaldu zen kexari erantzun nahi diogu. Bertan, Ikastolako 7. mailakoak kexatu egin ziren dantza jaialdian sartzen laga ez zitzaielako, nagusiei lehentasuna emanez.

Joan zen urteko esperientzia kontutan izanik, zazpirehun bat pertsona espero ziren Herriko Antzokian eta bertan lauhun jarleku besterik ez daude. Beraz, atea zazpiak eta hogeian zabaldu ziren pertsona nagusiak jar zitezten, egokiagoa irudituz zitzaigulako umeak tente egotea eta ez nagusiak. Ondoren, ez zen inongo eragozpenik egon, nahi zuen guztiak sartzeko.

Inazio Bereziartua Dantza Eskola

HARREGORRIGOIKOERRO TABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Sotera Zubiaurrek** lagatakoa da. Berau 1923-24. urtean ateratakoa da. Aurreko astean mutilen erretratua atera bagenuen, oraingoan neskena atera dugu. Ikusten duzuen ezala, mutil bakoitzeko bi neska dauden esamesa ez da gaur egungo kontua (35 mutil eta 74 neska).

Ikus dezagun zeintzuk diren: Lehenengo ilaran, zutik ezkerretik eskumara: **Dominica Oria, Isabel Mendizabal, Josefa Aranberri, Mikaela Aizpitarte (t), Eladia Carretero, Sotera Zubiaurre, Sole Sorondo, Pakita "Alzolabe" (t), Ramonita Eguren (t), Maria Altuna, Carmen Beloki, "Juanategi", Eulalia Mugerza, Petra Txukurra (t), Dioni Aranberri eta Juanita Olalde (t).**

Bigarren ilaran: **Benita Arregi, Bene Jauregi, Ines Unzilla (t), Bibi Garmendia, Maria Elorza, Isabel Unzueta, Maria Luisa Iriondo, Antonia Garate, Pura Gabilondo, Josefa Juaristi, Ignacia Mugerza (t), Ines Ziaran, Fidela Garate (t), Sor Maria Vidal**

(t).

Hirugarren ilaran: **Sor Laura Basterra (t), Felipa Ondarza (t), Dominica Agirregomezkorta (t), Agapita Perea (t), Luisa Zabaleta, Teodora Arrieta, Maria Intxausti, Maria Zabaleta (t), Gloria Suarez, Elvira Rojo, Sabina Garate, Beatriz Sorondo, Rosalia Canales (t).**

Laugarren ilaran: **Miren Gorriti, Ana Garate, Maria Arozena, Ines Revilla, Irene Etxaniz (t), Manuela Ortiz de VillaIba, Gregoria Elkoro-Irribere, Concria Solano, Sole Etxeberria (t), Carmen Zubizarreta (t), Solano, Luisa Revilla, Bene Arozena, Anita Iriondo, Vicenta Laskurain, Bittori Mugerza eta Eustakia Zubiaurre.**

Bostgarren ilaran, eserita: **Ezezaguna, Josefa Larrañaga, M. Luisa Olalde, Isidora Garate (t), Aurelia Lizundia (t), Consuelo Revilla, Olalla Vasco, Lucia "Pipas", Anparo Peral (t), Juanita Etxaniz, Imelda San Martin, Maria Iriondo, Luzia Ibarluzea, Alicia San Martin eta Digna Lasa (t).**

EXIMANIE S.L.

MAKINA ERRAMINTA ZERBITZUAK ETA ESCLUSIBAK

BULEGOAK: **ALMAZENA-TAILERRA;**
 Azpilgoeta, 3 **Pedro Muguruza, 25**
 TEL. 75 50 93 FAX 75 51 21 **TEL 74 36 46**
 20 850 MENDARO **20 870 ELGOIBAR**

1_ ABERNA
DA PA HOTZAK
 ETA BEROAK
 Santa Klara 22 behea
 ☎ 74 26 32

San Juan laueko sorginkeriakzko sua



- **Altzolan erramua jartzen da atarian gaitzak aldentzeko. Jaietara inguruetakoko jendea urreratzen zen.**

Hilak 24. San Juan eguna eta udako solstizioa ospatzen dira egun honetan. Urteko gaurik motzena edo egunik luzeena da. Sorginkeriak inguratutako jaiak; sua, kea, izpiritu eta majiazko gaua. San Juan suetan salto egin, edota Eibar eta Altzolako jaietara urreratu, horra hor aukera ezberdinak, norberak aukera beza. Gauaren eta suaren berotasunak egingo du gainontzekoa.

k5 an Juan gauean arbolak loratu eta fruitua ematen dute. Urak dohai berezia du: zelaian etzan eta goizeko ihintz freskuan bustitzen da jendea enorrak kendu edota azaleko gaitzak sendatzeko. Gauean itsasoan edo erreketan bainua hartzeak energia ematen du. Iturrietako ura edaten da, eta gorde egiten da, gau honetan jasotako ura bedeinkatua baitago. Belarrek ere dohai bereziak izaten dute. Belar ugari jasotzen da: baleriana, berbena, albaraka, ... Baina San Juanetako ospakizunetan ezinbesteko elementua sua da. San Juan gaueko su garretan erretzen dira etxeko tresna eta trapu zaharrak, izpiritu txarrak uxatu, hainbat gaitz sendatu eta suaren inguruan dantza egiten dute maiteminduek. Udako solstizioa

aitzaki, kondaira, istoria eta kanta ugari sortu dira. Hona hemen ekaineko San Juanen inguruan ateratako kanta: *"San Juan Bagilla, denpora ederra!*

Gariak eta artoak gorde. Zapoak eta subeak erre. Lapurrik bez, hesterik bez, badagoz be, erre beitez"

San Juanetako ohiturei loturik datoz herrietako jaiak. Gure inguruan Eibarren, eta gertuago Altzolan.

Altzolako San Juanak aski ezagunak izan dira ez bakarrik Altzolan bertan, Elgoibarren ere bai.

Altzolako jaiak

Altzolako San Juanak aski ezagunak izan dira ez bakarrik Altzolan bertan, Elgoibarren ere bai. Garai batean jende mordo urreratzen zen Altzolaraino, sokamuturrean korritzera edota kontzertuak entzutera. Gaur egun, jaiak ez dira lehenago bezalakoak. Duela hiru edo lau urte, asko jeitsi ziren

jaiak. Aurrekontu murrizak, egitaraua murriztuarazi du. Egun bost gazte ibiltzen dira jaiak antolatzen eta Udalarekin kexu dira, beren ustez, Altzola baztertuta dutelako.

Ibaiko sua

San Juan egunak esanahi berezia du altzolatarentzat. San Juan bezperako sua, ikusgarria bada berez, are gehiago da Altzolakoa. Deba ibaiaren erdi erdian su handi bat jarri ohi dute, puntan kopin handi batekin. Barrukoa, suzkorroberaz eta eztanda egiten duten gauzez betetzen dute. Sua errepidea baino altuagoa izaten da eta su garrek izugarritzko altuera hartzen omen dute. Aurten baina, Aldundiak debekatu egin du sutea ibaiaren erdian jartzea. Arrazoia, ibaia kutsatzen dela. Ohizko lekuaren ordeztan, Altzolabean jartzeko agindua eman du Aldundiak. Erabakiak izugarri mindu ditu altzolatarrak, uler-

San Juan egunaren inguruan kondaira eta ohitura berezi ugari sortu dira Askok gaur arte iraun dute.

gaitza baitzaie aspalditik datorren tradizioa baztertzea, horrela, bapatean, eta itxuraz konbentzitzen ez dituen arrazoi bategatik.

San juanen omenez

Altzolan San Juan eguneko hainbat tradizio zaharrek iraun du gauregun arte. Bezpera egunean, mendian ebakitako arbola bat frontoian jartzen da. Garai batean sua egiten zen haren inguruan eta gazteak arbolatik gora igotzen ziren. San Juan eguneko beste tradizio bat, etxebizitzetako atarrietan jartzen den erramua da. San Juan goizean, jaietako erresakak pasatu gabe oraindik, mendira joan eta erramua moztzen da, gero atarian jartzeko. Prozesioak ere betidanik egin izan dira San Juan egunez Altzolan. Meza nagusiaren aurretik prozesioan irteten dira parrokiatik iturriraino, hemen buelta bat eman eta berriz ere parrokiara, mezari ekiteko.

dar... 4, TO 6

- San Juan Bautista eguneko goizean, eguzkia atera aurretik, hiru buelta ematen dira etxearen inguruan piztiak uxatzeko.

- Gaisotasunak hartzerik nahi ez dutenak, goizek ihintzarekin batera, gari artean biluzik **ibiltzen** dira Nafarroako herrixka askotan.

- San Juan belarrak bezperan erre eta g⁴ ien hautsa gorde. Haurr^o edozein hazkura lasai^o, hautsak erabili,,

- Juan Ir=linean siesta egiten uena, **y**ll a urte guztian Idaz asetzeti.

- lau,etan Ibrik hartzen ez dutei¹ "- 'eak Murelagako San Juan r^o, "a eramaten dituz

- zaurak ditote San Juan goizean eguzkia dantzara irteten, dela. Hau ikusteko Aizkorrrira joan behar omen da.

- San Juan eguna ostiralean lokatzen denean urte oso txania ala urte oso ona izan

- Ezkondin na iE (l,uten ne,ka gazteek haso nrez ko

tdfa 1 -ant i '-. 5737 J an

- z, a ,, e . r7.71 i ru

"m .. -Q, ,, 1-t en ,J,,) e, tole **tre**" 3 g I.11 -r "ll **Te**

- go egunz. ri.-1 /, .2: •ertzen den **nibti** 1 ena, berau

- izango i'j ,lairik fidele-na.

- Ar J Jla latek fruiturik ematen ez badu, zera egiten da: San Juan egunsentian, eguna argitu aurretik, herri-tik kanpora joan eta harri ba hartzen da arbola haren adar-reen artean jartzeko.



• San Juan bezperan, derrigorrezkoa da suaren gainetik salto egitea.

ARRAZ BIZICAR
lielaDOAK

RDO ETA RATTARRA
 PATATA SAIMENTA
 Etixerainoko
 banaketa
 Ermsario 18
 74 02 37

IDARRAGA
 KAFEAK

Eguneroko errealdiak

Scin Frantzisko 17. Tel. 7,4 05 33-36 39

Fotero

OKINDEGIA
OPIILDEGIA

San Frantzisko, 4
 kjel. 74 07 35

ZOBEL

KORTSETERIA, OSAGARRIAK
 ETA BARRUKO ARROPA.

an Roke 13 behea. Tel: 74 34 01

ecenarro

Barruko erropak
 Umeentzako erropak

San Frantzisko 10, Tek.. 74 26 19

ASTE HONETAN

Herriko Antzokiko berritze lanak

Herriko Antzokiko berritze lanak, iazko uztailearen inguruan hasi ziren. Haserako lanen helburu bakarra, legea betetzeko asmoz, gela insonorizatzea zen. Halere, berriztapenak hasi bezain laster, beste behar batzuk agertu ziren, hala nola, soinuaren hobekuntza, eserleku aldaketa, komunen hobekuntza, ezinduentzako zerbitzuak, e.a. Are gehiago, Diputazioatik dirulaguntza bat lortzeko asmoz, eskenatokia handitzea planteiatu zen, antzerkiak egiteko neurri minimoak bete zitzan eserleku kopurua mantenduz (gaur egun 409 eserleku daude eta eskenatokiaren neurriak 14x8koak dira). Haserako proiektuan sartuta ez zeuden hobekuntza guzti hauek medio, lanak aurtengo ekainera arte atzeratu dira.

Atzerapen hau onuragarria izan da zentzu guztietan: erosotasuna, dekorazioa, zine eta antzerki soinua... Eta aurrerantzean, gure Antzokiari ahalik eta probetxurik onena ateratzea da gure asmoa, zine komertziala ez ezik, zine klub, antzerki, musika eta dantza saioak ere bai.

Irailetik aurrera, zine komertzialerako ezarritako prezioak hauexek dira: 350 pta nagusiak eta 200 pta haurrak. Ordutegiari dagokionez, honako hau izango da: Ostirala 22,15, larunbata 19,30 eta 22,15, igandea 16,30 (haurren emanaldia), 19,30 eta

22,15. astelehena 22,15 eta asteartea 22,15 (ikuslearen eguna, 200 pta).

Antzezlanak, ostiralean emango dira, gutxienez bi hilabetetik behin. Gure herria Diputazioko antzerki zirkuito barruan sartuko denez, Elgoibar bailarako buru izango da antzerki mailan.

Musika Fundazioa eta antzerako elkarte guztiek, Herriko Antzokiko instalazioak erabili ahal izango dituzte, Kultur Batzordearen ustetan ekin-tza herriarentzako interesgarria bada, beti ere eskaera hilabete aurretik gutxienez egiten denean. -

Hortaz, programazio irekia izango da herriko elkarte guztientzat. Instalakuntza berri hauek denon onurarako eta herriaren garapen kulturalerako ahalik eta onenak izaten saiatuko gara.



BLANKA SALEGI
 Udaleko Kultur Teknikaria

rnorvoo

OINETAKOAK

San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 37

EMEN Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

Zer zaizu Herriko Antzokia?



NEREA ARANBERRI
24 urte, langanbetua

Oso ondo dago baina eserlekuak dia... txarrak, inkomoduak. Altuak dia eta tente-tente egon bihar zera eta ez da leku asko geratzen hankentzat.



NEREA OSORO
20 urte, langabetua

Oin txikixaua ematen dau eszenarixua haundixaua dalako baina poli-politxa dao. Asientuak dia Astorianekuak modukuak, oso komoduak.




LOURDES GARCIA
16 urte, ikaslea

Ez dakit, orokorrean ondo dago. Jarlekuak erosoak dira baina Ieku aldetik lehengo antzera da. Merezi izan du konpontzeak.



FRANCISCO ORTEGA
23 urte, mikromekanikoa

Oso ondo dago. polita laga dute, jarlekuak oso erosoak dira, gehiegi agian, ia-ia lotaratu egin nintzen! Ideia ona izan da doan jartzea.



AITOR GALARRAGA
23 urte, langabetua

Lehen gitxitan egon nintzan baina oin ondo jarri dute, butaka eta soinu aldetik. Gogorra izan da zine gabe egotia baina merezi izan dau.



ROLANDO TRUCIOS

52 urte, agente kamertziala
Ni ez naiz egon oraindik, asteburuetan asko irten beharra izaten dut eta. Baina emazteak eta alabak komentatu didatenez oso ondo omen dago.

AGUAS
ALZOLA
URAK

Logopedia Zentroa



Isabel Gil Arcecho

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

Bidebarrieta, 27-B
Tel. 11 84 71 EIBAR

• Kanpaldiak udarako


Zuhaitz Astialdi taldeak bi kanpaldi antolatu ditu aurtengo udarako Deba bailarako beste aisialdi talde batzuekin koordinatuz. Bata, Tudanca de Ebro herrian (Burgos) 12 eta 14 urte bitarteko neska-mutilentzat, eta bestea, Cistierna-San Salvador (Palencia) herrian 15 eta 16 urte bitartekoentzat. Kanpaldi biak uztailaren 30ean hasiko dira, abuztuaren 13an etxeratzeko. Matrikula 10.000 pezetakoa izango da. Izena emateko 74 02 03 zenbakira deitu, astelehen, astearte edo ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 9etara bitartean, Jon edo Xabierrengatik galdetuz edota, norberaren parrokiako arduradunarekin harremanetan jarri.

■ Trikitilarien jaialdia

Elgoibarko Trikitilari Eskolak ikasturte bukaerako jaialdia burutuko du gaur, ostirala, hilak 24, Herriko Antzokian. Jaialdia gaueko 9,30etan hasiko da eta guztira 84 haurrek jardungo du soinua eta panderoa jotzen. Trikitilariak joko dituzten piezen artetik, zenbait dantzarako eginak dira. Hauetan Haritz taldeko bikoteak arituko dira dantzan. Trikitilarien irakasleak Lourdes Alkorta eta aurtengo trikitilarien txapeladuna izan den Xabier Alberdi "Zabale" dira.

111 Jaietako egitaraua

Elgoibarko Udaleko Kultur Batzordeak lehiaketa antolatu du 1994ko San Bartolome jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko. Erabili beharrezko teknika librea izango da, lanaren neurria A2 izan beharko delarik. Diapositiban egindako lanetan ezik "Elgoibar, San Bartolome Jaiak 1994" testua agertu beharko da. Irabazlearentzat, 40.000 ptako saria egongo da eta lehen elgoibartararentzat, 10.000 ptako sari berezia. Lanak Kultur Etxean aurketzu beharko dira, uztailaren 4ean eguerdiko 2etarako.



Ikastolako gurasoek jai eguna ospatu zuten joan den larunbatean. Goizean hasi zen jai haurrentzako jokuekin. Haurrek ezezik, gurasoek ere izan zuten zertan gozatu. Sokatira, erreleboen lasterketak, haurrek antolatutako taberna... Jai giro ezin hobean pasa zuten eguna, gurasoak haur bihurtu zirelarik egun batez besterik izan ez bazen ere. Ikastolak eskerrak eman nahi dizkie Udalari, San Migel bailarari, Eroskiri, San Lorentzo bailarari, guraso, haur eta irakasleei gurasoen eguna antolatzen lagundu zitelako.



San Migeltarrek beren eguna ospatu zuten joan den igandean. Meza entzunez hasi zuten eguna, ondoren hamaiketarekin jarraituz. 12etan "Murkaikupe Pilota Txapelketa"ko azken partiduak jokatu ziren. Txapeladuna Xabier Loiola izan zen, baina iloba-osabaren arteko lehia azken unera arte mantendu zen. Azkenean Xabier Loiolak 22 eta Fernando Loiolak 21. Hirugarren Agustin Ansola izan zen 7 pilotakadaren aldeaz irabazi baitzion laugarren geratu zen Joxe Mari Txurrukari. Ordubiak aldera 100 bat lagun bildu ziren frontoian egin zuten bazkarian. Auzotarrek Maixa, Itziar eta Garbifie trikitilariak alaitutako erromeriarekin bukatu zuten eguna.

8 intsumiso epaitu dituzte dagoeneko



Aste honetan argazkian dagoen Luziano Arregi eta Fernando Garate epaitu dituzte

Aste honetan azken bi intsumiso elgoibartarrak epaitu dituzte. Hilaren 20an Fernando Garate eta 21ean Luziano Arregi. Biak sententzia atera zain daude. Azken hauek eta Aitor Esnaolak ez dute tribunala onartu funtsezko lau arrazoigatik: Sententziak militarrek eta gobernuak aurrez ezartzen dituztelako, delitu berberagatik zigor ezberdinak jartzen dituztelako, intsumisoa delitua ez delako eta beraz, epaituak izatea merezi ez dutelako eta epailea inoren kontzientzia epaitzeko gai ez delako.

Talde Antimiliaristak sistema

hau "faxista" dela salatu du eta "baIore ez solidarioak, matxismoa, interes kapitalistak e.a." bultzatzen dituela gaineratu. "Arazoa guztiona dela" eta kalean borrokan, intsumisoen eskubideen alde, jarraituko dutela adierazi dute Talde AntiMilitaristako kideek. Epaiaketak salatze-ko eta Udaletxea bezalako erakunde-
deen inplikazio handiagoa eskatuz, larunbatean, hilak 25, arratsaldeko 7etan manifestazioa burutuko da Maalan. Era berean, kontzertu bat antolatu dute uztailaren 2rako, EH Sukarra, Etsaiak eta Julio Kageta taldeekin, Ikastolan.

■ Pintura erakusketa

Egur Arte Lantegiak antolatutako pintura erakusketa hilaren 24an hasten da. Erakusketan oleoak, akuarelak eta beste teknika batzuen bidez margotutako kuadroak ikusi ahal izango dira. Bisitatzeko azken eguna, uztailaren 10a izango da eta ordutegia ohizkoa.

■ Zinea uztailean

Kultur Batzordeak zine komertziala jartzea erabaki dut Herriko Antzokian uztailaren lehen bi asteetan. Sarrera ordaindu egin beharko da eta bi aste hauetan prezioa iazkoaren berdina izango da, 300 pta. Uztailaren 2an, 3an, 4ean eta 5ean "La casa de los espíritus" filmea emango da eta haurrentzako emanaldian "El niño Leon". Hurrengo astebukaeran, 8an, 9an, 10ean, 11ean eta 12an hain zuzen, "La señora Doubtfire" filmea eskainiko da. Ordutegia honako hau izango da: ostiralean 22,15etan, larunbatean 7,30etan eta 22,15etan, igandetan 4,30etan haurrentzat eta 7,30eta eta 22,10etan nagusientzat eta astelehen eta asteartean 22,15etan. Uztailaren erdi aldetik aurrera Plaza Handiko aire libreko zinea hasiko da. Irailean sarrera 350 ptakoa izango da. Ikuslearen egunean 200 ptakoa.

Lagunak Pilota Eskolak antolatutako herri mallako pilota txapelketaren finalak jokatu ziren asteazkenean. Lau mailatan jokatu ziren partiduak. Benjamin aurreko mailan Unai Gasteain eta Iban Muruak jokatu zuten eta azken honek 18 eta 7ko emaitzaz irabazi zuen. Emaitza berberaz nagusitu zitzaion benjaminetan, Iker Martinez Asier Elustondori. Alebinetan 18 eta 14 irabazi zion Ivan Rojok Mikel Elustondori eta jubeniletan Jon Garate Josu Zabalari nagusitu zitzaion 13 tantuko aldeaz. Pilota txapelketa honetan 150 partidu jokatu dira guztira.



Izaskun Elizburu:

"Bertsolariak hitzen bidez enarno zaitzake"

"Ama Berastegikoa da. Gogoratzen dut nola txikitatikan, Berastegiko San Lorentzo festetan, bertsolarixak zeuden lekuan egoten nintzan beti. Egon leiken Egan edo beste edozer baina ni beti bertsolarixak ikusten". Ume izateari utzi eta ingeles filologiari heldu zion Izaskun

Elizburuk, "garai hartan irtenbide dexente zituelako". Halere, bertso mundua beti jarraitu du gertutik. 1993ko gabonetan, Elgoibarko Bertso iaialdian gai-jartzaile gisa aritu zen. Hura izan zen hasera, ordutik beste zenbait tokitan ere izana da, eta izatekotan da.

- Nola hasi zinen gai jartzaile bezala?

- Meabe ezagutu nuen eta berak komentatu zidan ea prest egongo nintzen Gabonetako jaialdia aurkezteko. Ezetzik ezin esan, neri bertsolaritza beti gustau jata eta berba itxia ere, eta horrela...

- Nola moldatzen da emakumezko gai jartzaile bat bertsolari gizonezkoen artean?

Neri Sebastian Lizasok esan zidan lehenengo aldiz nirekin abestu zuenean nerbiozko zegoela, ez neska nintzelako, berarentzat berria nintzelako baizik, eta ez zekielako nundik norako gaiak jarriko nizkien. Hori bai, bertsotan ari direla neskekin gehiago sartzen dira baina beti gauza positiboeekin, gai jartzaileak mutila bada bere gauza negatiboeekin sartzen dira.

- Zuk jarritako zein gaitik atera da bertso on bat?

Bertsolarixak hartzen dituzu kontuan gaiak jartzeko orduan. Pasa dan astean, San Migelen Egariari ondoko gaia jarri nion: bera, kafea hartu eta gero platerrean geratzen den azukre koskorra zen.



"Batuetan bertsolariek aurrez jakiten dituzte galak".

Oso bertso ona bota zuen.

- Zer nahiago, bapatekoa ala idatzizkoa?

Diferentia dira. Jon Sarasua bertsolari mundiala da ahozko bertsolaritzan baina ezin da konparatu idatzizkoan, idatzizkoan gaur egun dauan bertsolaririk onena da, adibidez Oskorrirentzat egin dituen bertsoak.

- Baina letra hoiek bertsoak dira ala poesia?

- Hor diskusio asko daude, zer dan bertsolari izatea eta zer poeta, edo bertsolari guztiak poetak diren. Sarasuaren bertsoak

ez dira poesia nere ustez.

- Txapelketen aldekoa?

- Ez gehiegi. Txapela ez du beti merezi duenak irabazten. Txapelketa batek balio du, zortzi finalistetan baina ezin da konparatu denak urtean zehar plaza gehiago egiteko.

- Jaialdietan, bertsolariek ez al dituzte gaiak aurrez jakiten?

- Bakarkako lanetan askotan. Batez ere gai jartzaileak jaialdia asegurtzea nahi duenean. Minutu bat lehenago gaia jakitea kriston abantaila izan daiteke bertsolari batzuentzat

kriston bertsoa botatzeko.

- Ez al da ikuslea engainatzea?

- Nahiko ageria da eta ikuslea jakitun dago.

- Bertsoa zer da, hitza ala doinua?

- Elkarketa. Bertso bati segun eta ze doinu jarri joko du gora edo behera. Doinu oso inportantea da, bertsoa bezain inportantea.

- Bertsolari onena?

- Andoni Egaria.

- Botako al zenuke orain bapateko bertso bat?

- Botako nuke, ez da zaila, baina ez nuke nahi dotena komunikatuko, ez daukat ahalmen hori, bertsolariek badaukate.

- Bertsozalea ala bertsolarizalea al zara?

- Bixak. Haseran bertsoak gustatzen jatazen, bertsolaririk ez naban ezagutzen eta gainera ez nakan inongatik mirespenikan. Gero, ezagutzean, hizkuntza erabiltzeko daukaten eragatik bakarrik enamoratu zaitzakete. Nik ez daukat erlazio amorosorik euskararekin baina bai konpromezu bat, orduan euskara nola erabiltzen duten, ze eratan komunikatzen dizkizuen gauzak ikusteak...

ZOT '110'zi duzu intsumisioaz?

EC
ILJO



XABI GOIKOETXEA
25 urte, intsumisioa

Ni intsumisioa naiz pazifista naizelako eta ejerzitoaren abolizioa nahi dudalako. Kontzientzia eragozpenak Estatuaren neurri errepresiboak onartzea suposatzen du, eta ez du zerbitzu militarrean aldaketarik sortzen.

AITOR TXURRUKA
24 urte, objetorea

Objetorea naiz ez dudalako arrazoirik ikusten soldaduzka egiteko. Horren aurrean aukera intsumisio edo objetore izatea da. Intsumisioa da modurik onena soldaduzkaren aurka joateko, baina momentuz objetore naiz. Hala ere badut intsumisio izateko aukera.



JAVI GARCIA
20 urte, soldaduzkara doa

Nik soldaduzka egin behar dut ikasketak burutzeko gogo handirik ez daukadalako; momentuz soldaduzka egin eta kitto. Gogo handirik ez daukat juteko baina jun bihar bada jungo gera, epaiketetan ibiltzeko gogo handirik ere ez daukat.

gr
E
1-


T
E
T

EC



ELENA ZUBIAURRE
18 urte, ikaslea

Ondo iruditzen zait intsumisio izatea, norbera libre da nahi duena egiteko. Estatuak ezin du jendea behartu soldaduzka egitera. Soldadutza boluntarioentzat izan beharko luke soilik.



JAVI ARRIETA
25 urte, torneroa

Nik soldaduzka ein det neretzako praktikoena eixia dalako. Soldadutza ez zitzaidan oso gogorra egin, hasierako kanbixua pixkat gogorra izan zan, baina gero ohitxu eitzen zera.



BENARDO CEBRIAN
47 urte, mekanikoa

jutea nahi dutenen eta nahi ez dutenen ideiak errespetatzen ditut. Nik pertsonalki soldadutza egin dut.

IC
A
L
E
T

Miongoliako talde bat izango da

jaialdilian



AAMON ORTEGA

Uztailean ospatuko dira Mendaroko Santa Ana jaiak. Uztailaren 22an, gaueko lletan eta pilotalekuan, nazioarteko dantza jaialdi bat egongo da. Bertan, Elgoibarko Haritz dantza taldeak eta Mongoliako Oiraty-k hartuko dute parte. "Oiraty" dantza taldea Elistatik dator, Kalmykia errepublikaren hiriburutik. Taldea 52 gaztek osa-

tzen dute, 18 eta 22 urte bitartekoak gehienak. Hauek, Chelyabinsk-eko eta Ufako koreografia eskoletan graduatuak daude bai eta Erista Kultur Unibertsitatean ere.

Talde honek eskaintzen dituen dantzak jendearen bizitzan daude oinarrituak: "Estepako arranoak", "Udaberriko jolasak", dantza folklorikoak "Chicherdyk", edo "Udako

jaialdia" bezalako koreografia musikalak. "Sakrifizioak Jainkoari" obran balleta dantzatzen dute. Egitarauko obrarik erakargarriena "Tsam" izeneko da, budista-lamista koreografiatan onarritua dagoena.

Haritz taldea, berriz, aski ezaguna da. 1960ko harnarkadan, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen ekintzetako bat euskal dantzak irakastea omen zen. 1974an Jon Arrieta eta Lurdes Odriak talde bat prestatu zuten herriko jaietan Soka Dantza zuzpertzeko. Taldea Haritz Euskal Dantzari Taldea izendatu zuen. 1986an taldea guztiz eraberritu zen Jose Inazio Sarasuaren eta Lurdes Odriozolaren zuzendaritzapean. 1987tik aurrera, Nazioarteko Folklore jaialdiak antolatu izan dituzte Elgoibarren, besteak beste, Egipto, Bolivia edo Errusiako dantza taldeek parte hartu dutelarik. Era berean, Euskal Herriko beste talde gutxi batzuekin eta Urbeltzen zuzendaritzapean, Zortziko eta Alakiketean ikusizunetan parte hartu dute.

Umeen Euskal Jaia igande honetan ospatuko da

Igande honetan, ekainak 26, ospatuko da Mendaron Umeen Euskal Jaia. Bertan, Errenteriako, Oñatiko eta Mendaroko 200 dantzarik hartuko dute parte. Eguerdiko 12etan kalejira izango da herriko kaleetan zehar eta 5,30etan alardea Goñati pilotalekuan. Ondoren erromeria egongo da arratsaldeko 7ak arte. Euskal jaia "Mendaroko Gazteak" dantza taldeak antolatu du Udalaren laguntzarekin.



LarraitZen akanpada bat izan zen pasa den asteburuan Arno Guraso Elkarteak antolatuta. Bertan 39 ikaslek hartu zuen parte. Igandean, Txindoki alderantz abantatu arren, ezin izan zuten gailurra burutu behe lainoa zegoela eta. Halere, eta eguraldiak apenas lagundu izan arren, asteburu zoragarria pasa zuten.

ASPALDIKO KONTUAK

/fuotta194ept aft9Uei edevt

oiz batian emaztia ta biok geure baserritik abiatu ginan Aitxola aldera, Zakabizar izeneko baserriko batera. Baserri honetakoa da neure emaztia ta gauza batzuek itxeko asmoaz goizian goiz Azpilguetan zazpiretako mezia entzun eta abiatu ginan.

Etxian armozau eta garai haietan kotxerik ez zauanez oinez abiatu ginan mendiz mendi. Lehenengo geure baserritik gorao dauan Izabaltxo izeneko baserrira ailau ginan eta handik Madarixara. Oraindik Zakabizkaera heltzeko kamiñu asko zauala ta harnaiketako egin genuen Madarixan. Hau amaitu eta aurrera jarraitu genuen emaztia eta

biok.

Heldu ginan azkenian baserrira, bertan aitzitxa ta amama bisitatu genituen, ganauei jaten eman eta ondoren bazkaltzen hasi ginen. Bapo bazkaldu eta berandutzen hasi zitzaigun, emaztiak etxera juteko ta juteko esaten zian baina Madarixara heldu orduko ilundu egin zuen eta ezin genuen aurrera jarraitu ez bait genuen ezer ikusten. Emaztia urduri jartzen hasi zan baina nik kamiñu ertzerabegiratu eta ipurtargi pila ikusi nituen, bi ipurtargi hartu eta txapel gainian jarri nituen. Haien argiei esker heldu ginan geure baserriraino.

MARTIN ULAZIA



tlptet lftwa P~ **SAINT GERONS** **txokolateriako langilea**

11 Zenbat urte txokolatearekin lanean? **I** Bi urte ta piku, iriki zenetik.

Zer da errezago, bonboiak ala txokolate tabletak egitea? **I** Biak errezak dira baina nik nahiago ditut bonboiak egitea, kreatiboagoak direlako.

11 Kanpoko jenderik etortzen al da txokolatea erostera? **I** Gipuzkoatik eta Bizkaitik. Baina Espainia aldetik ere jende asko etortzen da batez ere, Madril etaartzelona aldetik.

11 Zenbat ordu egunean lanean? **I** Bederatzi bat.

11 Gozozalea al zara? **I** Ez asko. Txokolatea baino pastelak nahiago ditut.

11 Saint Gerons ala Milka? **I** Saint Gerons.

11 Zenbat pertsona lanean? **I** Bi.

11 Txokolatea, bakarrik ala txurroekin? **I** Ogixakin.

Etxean txokolateari estimaziorik?

Gurasoen etxean bai. Igandero txokolatearekin gosaltzen genuen.

11 Saint Gerons txokolateak erosteko arrazoi bat? **I** Batez ere kalitateagatik eta baita artesiania lanagatik ere. Honekin produktu on bat lortzen da.

III. Pilota txapelketa

Maiatzean hasitako txapelketa hau azken txanpan aurkitzen da. Eskuzkoak ezik, erabakita dago zein bikote sailkatu diren. Ekainaren 28 eta 30ean jokatuko dira finalaurdenetako partidua, arratsaldeko 7etatik aurrera: Landa-Andonegi (Mendaro), Mitxel-Alfredoren (Deba) aurka. Moxo-Remi (Aizarnazabal), Urigoitia-Gorostizaren (Elgoibar) aurka. Egaña anaiak (Itziar) Mendikute-Longarteren (Mendaro) aurka. Arrizabalaga anaiak (Deba) Mancisidor-Mendizabalen (Zestoa) aurka. Finalurrekoak uztailearen 2an jokatu dira, goizeko lletan hasita. Finalak, berriz, uztailearen 9an, gaueko 10,30etatik aurrera paletazkoak, eta uztailearen 10ean, eguerdiko 12etatik aurrera, eskuzkoak. Infantilen mailan sailkatu direnak paletaz: nesken artean, Arriola-Isasti, Urbietta-Basurtoren aurka. Mutilen artean, Zulaika-Larrañaga, Idoeta-Zulaikaren aurka. Eskuz: Garcia-Rodriguez, Zulaika-Larrariagaren aurka.

Aitor Goikoetxe

"Maradona onena da, 'super-k ase' bat"

- Zenbat urte zabilta futbolean?

-Hamaika urte guztira. Hasieran Elgoibarren hasi nintzen. Alebinetan urte bat eta gero infantiletara pasatu nintzan ta azkenian Errealian fitxatu ziaten. Datorren urtearekin 8 urte daramatzat Errealean.

- Noiz edo noiz pentsatu al zenuen Errealera heiduko zinela?

Ez. Taldeak sortzen dira eta onenak aukeratzten dituzte, beraz, nahiko zaila da. Hasierako ekipotik hiru bakarrik daude.

- Zein da zure jokalaririk gustukoena?

- Maradona, "super-klase" bat dalako.

- Bartzelonatik eskaintzarik edukiko bazenu, onartuko al zenuke?

- Ez naiz hortan pentsatzen jarri; behin kanpora juteko aukera euki nuen baina ez nuen onartu.

- Nola konbinatzen dituzu futbola, ikasketak eta neskak?

Gauza batzuetan konprometitzen zeranian hortan kontzetratu behar zera eta aurrera.

- Asko ligatzen al da Errealeko jokalaria izan-



Aitor Goikoetxea: Elgoibarko futbol taidetik Errealera joan den 21 urteko gaztea.

da?

- Jendeak Errealekoa zerala baldin badaki agian zugean gehiago fijaszen dira baina hori norberaren esku dago.

- Zenbat denbora astean zehar entrenatzen? Gogorra?

- Bost egun entrenamenduan eta bat partitua. Egun bat bakarrik dugu libre, asteazkena. Tenporada bukaeran zerixobait nazkatuta bukatzen duzu.

Anoeta ala Atotxa?

Biak. Atotxa goxoa da jokatzeko baina Anoeta hotzagoa, eleganteagoa eta azkarragoa da.

- Zein posiziotan jokatzen duzu?

Erdilaria naiz, nik nahiago nuke aurrelaria izatea baina nire kondizio fisikoek ez didate uzten.

- Zure helburua nagusia?

Errealera igotzea.

Zein zan zure txikitako ametsa?

Betidanik amets egin dut futbolari izatearekin baina amets bat besterik ez zan. Ez nuen pentsatzen egia bihurtuko zenik.

- Eta bukatzeko, nork irabaziko du Mundiala?

- Brasilek.

Elsa Salegi

Salegi gozotegikoa



- **Nondik datorkizue tradizioa?**

> Nere aita pastelerua zan, bere anaia ere bai eta oin guk jarraitxu dau.

- **Zer nahiago, gozoa ala gazia?**

Gozoa, dudaripe.

- **Pastelak egitea ala jatea?**

> Itxia oso politxa da baina ez dakitx, jatia asko gustatzen zait.

- **Zer gosaltzen duzu?**

> Egunaren eta bolluek daken itxurian arabera gauza bat ala beste bat, baina beti bolluak.

- **Konpatibleak al dira pastelak eta dieta?**, Regimen askotan jartzen dute kroassana. Ez pasatzia da kontua. Nik mordo bat jaten dot eta ez nao potolia.

- **Sekula enpantxatu al zara pastelekin?**, Beti euki ditut nere ondoan eta ez dot sekula ansiedade hori euki hainbeste jan eta enpatxatzeko.

- **Nata ala kreina?** **1** Kremia nahixao dot.

- **Zuen espezialitatea?** **1** Beti euki dau familia arroz pastelak. Oin hasi gera gauza berri bat egiten intxaurrekin eta hola.

- **Reposteria artea al da?** **1** Bai, izan leike. Beti daude gauza bereziak mimo gehixokin itxen ditxuzunak, Pikasoren kuadroa, adibidez.

- **Pastelak ala tarta?**, Postre bezela pastelak eramaten dia baina zerbait ospatzeko tartia politxaua geratzen da.

- **Egin al duzue sekula tarta erotikorik?**

Eskatu ezker denetik egiten dugu.

- **Esatera gozo bat?** "A nadie le amarga un dulce".

- **Depresioarekin zaudenean pastelak jaten al dituzu?**

> Gorputzak eskatzen didanean, depresioarekin egon ala ez.

- **Txokolateak adikzioa sortzen al du?**

Nik uste dut baietz, neretzat bonboiak bizio bat dira.

- **Pertsona bat konkistatzeko?**, Bonboiak erregalatuko nizkioke.

- **Izozkien artean berezirik?**, Betiko gustuak egiten ditugu; gehien eskatzen dena da. Behin, pitufuak modan zeudela eta kolore urdina eman genion bainillazko helatu bati eta ume pila batek eskatu zeben.

- **Pertsonaia enpalagoso bat?**) Politikariak orokorrean.

- **Kafea azukrearekin ala gabe?** **1** Gabe.

- **Pastelekin loturik inoiz esan dizuten piroporik?**, Bollito.

- **San Juanetarako tarta bat?** **1** Moka de San Juan.

OPORRAK

DOINUA:

Pasaiako plazatik

Lana bukatu egin da oporrak honuntza askoz trankilagoa daukagu gorputza eguzkia hartzeko hor dago hondartza ta beste batzuentzat mendiko loreta.

Hiru hilabetian udako oporrak gehienentzako onak izango direnak eguzkiak berotu ditzake bazterrak kolore biziakin dira oso ederrak.

Jendeak egingo du ekipaia hartu munduaren lekuak ondo ezagutu abuztuan berriro herrira bueltatu irailetik aurrera oporrak bukatu.




ITZIAR LEIARISTI



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C.**

**111,14,1,ena. a4.t141,144)4.
0.644 kti"e4.3,Z4144.
Ect,Z4,4, 41,44,(044,ak**

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Diru proposamenak

Alizolako eta San Pedro auzo bietako (kalekoa eta baserritarra) jaiak antolatzeko bakoitzari 400.000 ptako dirulaguntza emateko proposamena egin da.

1 Taupada antzerki taldearentzat 350.000 ptako dirulaguntza antzerki ikastaroak antolatzeagatik.

1 Ongarri argazki taldearentzat, Leizarpe espeleologia taldearentzat eta Kokoe komiki taldearentzat 400.000 pta.

1 Egur arte tailerrarentzat, berriz, 438.000 pta.

1 Deba Beheko Mankomunitatearentzat 5.736.489 pta, ekainean bideak garbitzeagatik eta zaborrak garraiatu eta erretzeagatik.

Ur bonbeo estazio bat eraikiko da San Roke bailararako

San Rokeko etxeekin beti egon da arazo bat, batzuetan urik ez dela ailegatzen, alegia. Agarren dagoen depositoa askotan ez du apenas urik izaten. Horregatik, etxe bakoitzak bere moto-bonba txikia dauka. Honela, autopista inguruan dagoen Kakatza depositoko ura bertaraino ere iristen da.

Aspaldi zegoen asmoa San Roken etxe berriak egiteko eta horiekin batera egin nahi zen bonbeo-estazio berri bat ere, hartara, auzotarrek ura erruz jasoko baitzuten. Baina, badirudi etxe berri horien proiektua bertan behera geratu dela mementuz. Horregatik, aipatu estazioa beste leku batean kokatzea pentsatu da. Proiektua Injelan enpresak egin du. Horren arabera, bonbeo estazio berria Kakatza depositotik

200 bat metrotara kokatuko da, Mintxeta eta Alkorko bidegurutzean. Hiru bonba izango ditu eta bakoitzak segunduko 23 litro emateko ahalmena dauka. Normalean bakarria erabiliko da, bigarrena ere martxan jarri daiteke beharrezkoa denean eta hirugarrena batek kale egingo balu dago, badaezpada. Estazio berri honek San Roke osorako ura emango du eta etorkizunean San Lorentzon indus-

trialde bat egingo balitz, baita harako ere. Honela, Agarreko depositoa urik ez dagoenean, bonbeo-estazio berriari esker, Kakatzako ura zuzenean iritsiko da San Rokeko etxeetara, moto-bonba partikularren beharrik gabe.

Udaletxearen aurrekontua 31 miloi inguruko da. Irailaren erdi aldera hasiko dira obrak eta hiru hilabeteko luzapena izango du.



• Agarreko depositoa ez du ur nahikoa udan

TABERNA ERRETEGIA

PACO

r1=1717-7Fir (7rurr r fi:

+1111TUR ROAK +111UXARELIPI
 +SANIESKIAK +TXULETAIZ

(943) 74 28 44 ALTZOLA

ileapaindegi mixtoa

Errosario 9-lezk.
 r 74 44 89 ELGOIBAR

Vilarchao

ZAPATA
SALMENTA-KONPONKETA

San Frantzisko 34
 rx 74 21 99

San Lorentzo ermita

• San Lorenfzo ermitak aldaketa asko jasan ditu historian zehar. Zazpi belaunaldi, edo gehiago igaro dira eliza eraiki zenetik, ordutik gaur egun arte, belaunaldi bakoitzak bere aztarna utzi du.

Altuerari dagokionean, lehen bajuago zela esango nuke, absidean dagoen oholeraino zehazki, eta ezkerreko horman presbiterioan eta absidearen ondoan dagoen leihoaren oinaren pareraino. Batean zein bestean hormaren lodiera eta materialea bera ere ezberdinak dira.

Aipatutako leihoa 1666 urtean ireki zuten. Aurretik, eliza barruan oso argi gulxi omen zegoen, seigezi-leihoek, olio-lanparek eta kandelek eman zezaketen argi apala baino ez.

▪ Kanpandorreet, 1668an, 1724an, 1745ean eta 1748an berreraiki zuten. Gaur egun ezagutzen dugun bigarren kanpaia 1748 inguruan jarri zuten.

1:1 Zolua, 1696an, 1898an eta 1904an. Lehenengo adreilua erabili zuten, baldosak edo mosaikoak bigarrenik eta harlauzak 1904an.

▪ Arkupea 1712an berriztu zen. 27

langile aritu ziren 4 erreale kobratuz. Data horretan, 1711 ean izan zen erauntsi batek bota zuen horma berreraiki zuten. 1868an "zuzenketa lanak" egin zituzten, harmailetakoa lauzak eta eskantzuetakoa harlanduck jarriz.

III Guk ezagutzen dugun koroa, 1736crn eraiki zuten.

Sakristia berria 1739an eraiki zen. Erabili zituzten materialeak: hondarra, karea eta harlangaitza. 10 ofizial eta 4 peoik egin zuten lan. Kostua, 1491 erreale eta 32 marabedikoa izan zen. Udalak 300 erreale eman zituen eta gainontzekoa auzotarrek jarri zuten.

E9 XVII. mendetik, gutxienez, hiru aldare egon dira Sallobente ermitan. Aldare bakoitzean erretaula bana zegoen; San Lorentzo erdian eta aldamenetan S.Esteban eta Sta Isabel zeuden. 1904an hiru erretaula berri egin ziren, 1.000 ptako kostuarekin. Irudi berriek (S.Lorentzo, S.Jsidro eta Gurutze Santua) 821 ptako kostua izan zuten.

E] 1978 urtean, S.Esteban eta Sta Isabelen irudiak 7.000 ptatan salduak izan ziren, guk betirako galduz, zoritxarrez.

PELLO ARRIETA



Don Jose Maria Agirrebaizategi

(1910-1982)



0 Onatin jaio zen 1910. urteko ekainaren 2an.

0 Apaiza zen eta gaztetan etorri zen Elgoibarrera.

0 Gazteentzako ekintza mordo baten antolatzaile izan zen. Nahaste Borrastearen sortzaile izateaz gain, herriko lehen dantza talde folklorikoa sortu zuen, gerra zibilaren ostean.

Don Jose Maria Agirrebaizategik "Luistarrengan" pentsatuz sortu zuen lehen Nahaste-Borrastea I 1947ean San Luis egunean (ekainak 21).

0 Nahaste-Borraste burutu zen lehen urtean anekdota farregarri bat gertatu zen: zenbait lasterkari Plaza Handira heltzean zakuak hustuta iritsi ziren. Izan ere, zakuari zuloa egiten zioten pisua kentzeko. Hurrengo urtean, pikareskarik ez egoteko, zakuaren orde zati bat jarri zuten.

Hiru urtetan antolatu zuen Nahaste Borrastea, 1947an, 1948an eta 1949an.

1982. urtean hil zen.

E] p

p
V₄₀ b,

m i , , , , , l : 9

EMILIA FIDALGO SANTAMARIA (Batxilergo Institutuko giltzazaina) istripuz hil zen ekainaren 19an. Urte askotan ezagun eta lankide izan zaitugun irakasle, ikasle eta lagunok onena opa dugu zuretzat eta zure etxekonetzat.

2. III P

E] FE

5

E] 6 III

El 0 EiTel

Karate erakustaldia Olaizaga Kiroldegian

Larunbat honetan Olaizaga Karate Kirol Eskolak antolatuta karate erakustaldi bat burutuko da Kiroldegian arratsaldeko 6etan hasita. Olaizaga Karate Eskolak bukaera emango dio modu honetan aurtengo karate ikasturteari. Bi ordu erdi inguru iraungo duen saioan 100 bat karateka ekinean ikusteko aukera izango da. Elgoibarko karatekez gain, hainbat herritatik etorritako kirolariek parte hartuko dute, hala nola, Azkoitia, Markina, Lekeitio eta Eibar.

Nagusientzako gimnasia

Datonen denboraldian gimnasia klaseeteara joan nahi dutenei datorren astelehenean, hilak 27, Zaharren Biltokiko telebista gelan izango den bilerara dei egiten zaie. Zaharren Biltokiko zuzendaritzak deia ahalik eta arrakastatsuenaz izateko, herriko jubilatuen parte hartzera animatu nahi ditu.

Elgoibar-Gernika trabesia

Morkaiko Mendizale Elkartek Elgoibar eta Gernika arteko mendi trabesia antolatu du datorren uztailaren 3rako, igandea. Irteera Morkaikoren egoitzatik egingo da goizeko 6etan. Goizez egingo da trabesia, eguerdi alderako Gernikako elkarte batean bazkaria izango delarik. Irteeraren zenbatekoa 1600 pta izango dira, bazkaria eta itzulerako bidaia barne.

IFJ Iñaki Andonegi:

"Nizako Munduko Kopan parte hartzera noa"

I Iñaki, zer moduz Zarauzko triathloian? - Nizan izango dan Munduko Txapelketarako Espainiako selekzioarekin parte hartzeko baliagarria, nahiko inportantia. Urte guztia horretarako prestatzen egon naiz eta oso ondo irten jata, 4 ordu 57 minutu eta 18 segundu ein naban. Beste helburua Estatuko selekzioarekin Munduko Txapelketarako sailkatzea zan eta lortu det.

I Pozik? Noski. 12 postu zian eta afizionatu mailan eta nere adinean Nizako txapelketarako bostgarren sailkatu naiz. Jadanik hartu ditut Nizara joateko bileteak. Igande honetan, hilak 26, izango da.


I Zer espektatiba Nizarako? - Puf! Nahikua sufritu det urtian zehar, elurrakin, eurixakin... Nizara disfrutatzeraz nixe.

I Nizakoa zure bizitzako lorpenik handiena izango da, ez? - Bai, holakorik ez zait sekula gertatu. Munduko onenekin boxes-etan egon, hegiratu eta haingandik ikasi... Aurten oso ondo urten jata denboraldixa.

I Iron-manik egiteko asmorik?

San Bartolomietan Holandara nixe ironman bat eixtera.

I Iron-mana al da triathletaren ametsa? - Iron-manak distantzia luzeetako triathloiak dira. Hauetan lasaiago hartzen dezu, entrenamendua bera eta



dana. Beste gauza batzuk lantzen dia, 10 orduko edo luzeagoko frogak izaten dia, eta neretzat askoz politxauak dia. Iron-mana 3,8 km igeri, 180 km bizikletan eta 42 kmko maratoiak osatzen du. Esajerazio bat dirudi baina ein leike.

I Entrenamenduak ere espeztikoak izango dira, ezta? Iron-man bat edo Elgoibarko duathloia ez dia berdina. Froga luziak prestatzeko ordu asko sartu bihar dia. Giharrak landu ein bihar dia.

Triathleta, kirolari konpletua al da? - Bai, gorputz guztia lantzen dezu. Esaten da saltaka egitea eta bizikletan ibiltzia ez diala konpatibleak. Nik ez dot uste, estiramenduak ganoraz ein ezkeru.

I Hiruetatik zein duzu gogoken? Beti esaten det igerixan ez dakitela ondo, bizikletan ikasten ari

naizela eta saltaka orain ari naizela ritmoa hartzen. Gogorre-na piszinaan joan-eto-rrixak eitxia da, baina saltaka sufritzen da gehixen. Badauka alde ona, saltaka egiten nazkatzen bazera, beste kirol bati heltzen diozula.

• Adina: 24

- Zaletasunak: Irakurketa.
- Zer da kirola zuretzat? Bizitzeko ilusioa.
- Juergarik bai? Urtian dozena erdi, gusto gehlo hartzen zaio.

atatueteta

San Frantzisko 2 Tr 74 04 95 - ELGOIBAR

ANCHUSTEGJI Sa

ZERAMIKAK

Erakusketa e^o bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 74 23 71
20870 - ELGOISAR
Gipuzkoa

Hilaren 27an hasiko da udako udal kanpaina

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako aurtengo udako kirol kanpainak hilaren 27an izango du hasera egun ofiziala. Ekainaren azken astetik eta uztailaren bukaerara arte luzatuko da kanpaina, guztira 5 asteko iraupena izango duelarik. Guztira, 500 pertsona inguruk kirolen bat egingo du.

dalak badaramatza dagoeneko 6 urte udako kirol kanpaina antolatzen. Azken urteotako emaitzak ezin hobekak izan dira Udaleko Kirol Teknikariaren, Ramon Mujikaren iritziz. "Kirol kanpainak guztira, 500 bat lagun mugitzen ditu eta azken urteotan, gainera, emakur- ne helduen kopurua asko igo da". Helburua adin guztietako jendeak urtean zehar eguraldia medio edo beste arrazoi batzuek medio, burutu ezin dituen kirol iharduerak egiteko aukera izatea da. "Aldundiaren eta Udalaren filosofia, kirola eta natura bat egitea da, horretarako eskalada, raftina eta horrelako iharduerak eskaintzen ditugularik".

Haurrentzako ikastaroak zazpi



■ O Ilarakoak zein paraleloak, patinak modan dauden dudarik ez dago.

dira: eskalada, patinak, tenisa, buzeoa, boleibola, saskibaloia, gimnasia ritmiko deportiboa eta judoa. Judoa promozionatu nahian, kirol hau dohainekoa izango da haurrentzat. Nagusien atalean: aipatutakoez gain, parapentea, kirol jakinen entrenamenduak, fitness eta astebukaeretakoa irteeretan parte hartzeko aukera egongo da.

Arrakastatsuen tennis ikastaroa izan ohi da hurrengo, batez ere, 7 eta 13 urte bitarteko haurren artean. Orain dela bi urte arte, izena ematen zuten

guztiek izaten zuten ikastaroetan kabida, baina azken bi urteotan gertatu den masifikazioa dela eta, kopurua murriztu eta talde mugatuak sortu behar izan dira. Astebukaeretakoa irteerak ere arrakastatsua izan dira, horregatik gehienez, 17 pertsonako topea jarri da. Hiru irteera izan- 90 dira: uztailaren 15, 16 eta 17an Urbasa zaldiz, irailaren 16, 17 eta 18an Ebroko ibaian raftina, eta, irailaren 23, 24, eta 25ean Guarako kainoi jeitsiera. Irteera hauetara joateko, izena emateko aukera dago oraindik.



IRAKASLE ESKOLA

Magisteritza Eskolak zera jakinarazten du:

- ▶ 1994-95 ikasturterako aurreinkripzio-epa zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa
- Hezkuntza Musikala

Informazioa

IRAKASLE ESKOLA. Tel: (943) 71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)


ASESORIA, GOAS^R

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1 behe. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

Inoiz baino jelde gehiago Nahaste-Borrastean



• **Sari banaketaren ostean irabazleetariko batzuk.**

Aurtengo Nahaste-Borrastearen 10. edizioan inoiz baino jende gehiagok hartu du parte maila guztietan. Baina zerbait azpimarratzekotan, emakumeen partaidetza azpimarratu. Haurren atalean hiru neskatilak korritu

zuten eta nagusien lasterketan, berriz, bi emakumezkoak. Guztira 126 partaide izan ziren. Kimetzek eskerrak luzatu nahi dizkie parte hartzen zein ikusten izan ziren guztiei eta Iagundu zuten pertsona, denda, erakunde eta taberna guztiei.

SAILKAPENA:

HAURRAK

- **Infantilak:**
 - 1- Asier Arenal 14'42
 - 2- Fran Huidobro 15'06
 - 3- Juan Ramon Bell6n 15'22

- **Alebinak:**
 - 1- Julen Zabala 16'15
 - 2- David Bilbatua 17'08
 - 3- Zuhaitz Azpiazu 17'25

- **Neskak:**
 - 1- Mireia Huidobro 16'20
 - 2- Erika Fernandez 18'10

NAGUSIAK:

- 1- David Conde 22'25
- 2- Jose Felix Iglesias 22'40
- 3- Martin Dominguez 23'00

- **Beteranoak:**
 - 1- Juan Jose Etxeberria 24'15
 - 2- Iñaxio Garmendia 27'16
 - 3- Antonio Fernandez 29'25

- **Emakumeak:**
 - 1- Inma Mugerza 27'36
 - 2- Gotzone Aierdi 32'25

KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK

Arrantza txapelketa Zumaiaiko Bedua auzoan

La Union elkarteak bazkideentzako arrantza txapelketa antolatu du Zumaiaiko Bedua auzoan. Txapelketa uztailaren 17an izango da. Izena emateko epea uztailaren 13an bukatuko da eta eginkizun horretarako *Garagarza* erlojudendara zuzendu. Bazkideek 1000 pta ordaindu beharko dute izena ematerakoan, jubilatuek 800 eta haurrek 500. Postuen zozketa *La Union* elkartearen eizingo da arratsaldeko 7,30etan. Izena ematerakoan beharrezkoa izango da Federazioko eta errekan arrantzatzeko baimena aurkeztea.




Ikas-gorri txapeldun! Ikastolako 4, mailako neskez osatutako Ikas-gorri taldea hiru kiroletan txapeldun geratu da heiTi mailan. Izan erc, txapeldun izan dira eskubaloian, saskibaloian eta areto futboleant. Taldea osatzen duten 14 neskatok hauen entrenatzaileak Rafa Polo eta Javier Uriarte izan dira. Beraz, zorionak hauei eta neskei ere bai. Ikas-gorri osatzen dutenak: Maitane Ori, Maite Uriarte, Ainhoa Uriarte, Maria Bilbatua, Nuria Revuelta, Amaia Polo, Amaia Zubiaurre, Amaia Madariaga, Erika Lehr, Esther Zubiaurre, Edurne Juaristi, Ane Palomino, Loinaz Polo eta Nerea Etxeberria. Argazkian Ikas-gorri taldea eta Javier Uriarte, entrenatzailea.

Fosilen musena astea behin zabalduke da

Leizarpek, Deba Beheko 16 kidez osatutako espeleologia elkarteak prestatu duen Euskal Herriko paleontologiari buruzko museoak, larunbatean, hilak 25, irekiko ditu atea lehendabizikoz. Museoa Pedro Muguruzako eskolaurrea zegoen lekuan dago, eta herritarrek ez direnentzat, bertaraino heldzea zail xamarra izan daitekeenez, Leizarpek larunbatean goizeko 11etan Plaza handian biltzeko deialdia egin du. Plaza Handitik museoarantz abiatuko dira. Behin lokalean, azalpen txiki bat ernango dute bertan ikusi ahal izango denari buruz. Eguerdiko 1,30ak aldera luncha izango da eta 2,30ak aldera museoak atek itxiko ditu.

Inaugurazio ofizialaren ostean, astean behin, astearte edo oste-



gunetan 6etatik 8,30ak arte, zabaltzea pentsatu dute museoak. Eguna oraindik ez dago ziurtatuta. Museoan Euskal Herriko 400 bat fosil, kanpoko 100 bat fosil adierazgarri eta 150 inguru mineral

ikusgai daude. Leizarpek herriko hiru ikastetxeak gonbidatu ditu museoak ikustera, eta aurrerantzean museoak bisitatzeko eta fosilen mundua ezagutzeko irteerak egiteko aukera dagoela adierazi dute.



TROPİKO

**Zure jatorduetarako leku
aproposa prezio eta giro egokian**

**RANBURGESAK ANRICHAK
GOSARIAK • BOKATAK PINTXOAK
PIZZAK PILATER KONBINATUAK**

LAGUNARTEKO AFARIAK

HIURRENURTEBE 7r: ZEAK

Astean zehar goizeko 9etatik zabalik

Asteburuan 12,30etatik aurrera

San Frantzisko 48 - Tel: 74 42 96 - Elgoibar

Taupada antzerki taldea Udako Euskal Unibertsitatean

Ekainaren 18an hasita eta 29a arte, Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañagak, Taupada antzerki taldeko kideek, zirkoari eta antzerkilaritzari buruzko ikastaroa emango dute Udako Euskal Unibertsitatean.

Lehenengo astean, besteak beste, malabare jokoak (pelotak, mazak, diabolok, txinatar makilak), akrobazia, eta oreka (monozikloa, ruloa eta zankoak) egiteko aukera izango da, baita zirko teknika horiek antzerkian gauzatzeko erak ere. Hurrengo astean, gorputzaren jarrera, erlajazioa, mugimendua eta elementuen kontzientzia landuko dira, aurretik ikasitako beste guztiekin batera. Oraindik ere joan nahi duenak izena emateko aukera du hil honen bukaerara arte.

Slaigdeo, d«Oeftedadf

iltada deta teded ,4014



Ekaineko azterketa finalak bukatzeke daudenean, buruhauste ugari ekarri ohi dizkigute ikasleoi. Uda guztian eraman beharreko zama hori, nola kendu aztertzen hastea oso erraza da. Erremedio bakar bat besterik ez dugu topatzen. Udako lehen hamabost egunak ikasten pasa eta ondorengo hiru hilabeteak nahi duguna egiten pasatu. Baina, gazteak izanik, haizea ugaria da ganbara aldean eta maiz, egunean egunekoari begiratzen

diogu eta saiakera neketsurik ez dugu apenas egiten, gerora kalterik baino ekarriko ez digun arren.

Gehienetan, udara osoa barruan kezka bat dugula pasa ohi dugu, eta ez kezka txikia gainera. Urte guztia berdina igaro beharra ere gogon bada. Behin ikasketak utziz gero ez da samurra izaten inoren menpe egon gabe, nork bere kasa ikasi beharrak ekartzen dizkigun buruko minak.

LHIKO IKASLEAK

BERTSO AFARIA SAN PEDRON

Uztailaren 1 ean, ostirala. Gaueko 9etan.


**JOXE AGIRRE
ZIAIRDA
LOIDISALETXE
GORROTXATEGI**

PREZIOA: 2.500 pta.

IZENA EMATEKO: Ekainaren 30a baino lehen.

San Pedro jatetxean: 74 00 10 Elgoibarko Izarra K.E.n: 75 74 16 26

Herri-Gain jatetxean: a 74 30 40 Unzue Pentsuak: Tr 74 25 49



ANTO1ATZAILEAK: Elgoibarko Izarra K.E. - San Pedroko jai batzordea. LAGUNTAILEAK: Elgoibarko Udala - Gipuzkoako Foru aldundia



LOKAL KOMERTZIAL BAT EDO GARAJE BAT saltzen da Urasandin.
"s" 74 21 86

MOTOR bat daukat SALTZEKO G.A.C. Onix 2. 900 km.
Gauetz, 8etatik aurrera.
Ir 74 29 32

GARAJE BAT alokatzen da pista beltzean. Marraduna da.
Ti' 74 21 64

GARAJE BAT alokatzen da San Roke 5ean. Marraduna.
72 74 08 05

BROTHER TRIKOTOSA BAT SALTZEN DUT.
Bigarren eskukoa.
Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
74 18 51

SURF tabla bat saltzen dut 20.000ptatan "Esus" markakoa.
72 74 07 61 Julen (afal orduetatik aurrera.)

San Roke auzoan GARAJE BAT alokatzeko daukat.
12r 74 00 67 Martin

PISU BAT ALOKATZEN DUT CAMBRILSen.
Uztailaren 2. hamabostaldia eta abuztua.
7i' 74 27 89
Deitu 20,00etatik aurrera.

LOGELA BAT DAUKAT ALOKATZEKO. Erropak ere garbitzen ditut.
rf, 74 24 06

PISU BAT daukat salgai Ermuaranbiden.
II* 74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu Pedro Mttguruzan. Egoera oso onean eta guztiz amuehlatua. Bigarren pisua.
11' 74 08 57

BUNGALOW BAT ALOKATZEN DUT Santa Polako hondartzako lehen ilaran. Ekaina, uztaia, iraila.
ir 74 27 02 Ana

Apartamentu bat daukat Benidorm-en alokatzeko moduan. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua. Labadora eta aire girotua.
n" 74 16 57 / 11 32 15

PISU BAT daukat alokatzeko ALCOCEBER-en (Castellon). Uztailean.
11 74 21 86 Maria

Bestelakoak

Bigarren eskuko FRIGORIFIKO BAT BEHAR DUT. Deitu 10etatik 1 zetara.
72 7406 64 Nekane


Lana

BBB eta UBiko FISIKA ETA MATEMATIKAKO KLASEAK ematen ditut. Euskaraz eta erderaz.
"ir 74 23 01 Jokin

FRANTSSES KLASE INTENTSIBOAK ematen ditut. Uztailean zehar.
74 04 59 Jacqueline.
8etatik aurrera deitu.

Klase partikularrak ematen ditut. Matematikak, kosteak eta kontabilitatea orokorrean. Ekainean eta uztailean.
74 21 65 Jabi

31 urteko neska etxeko lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest dago.
s' 17 17 40



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak ■ 461111 ■
Txanda hartzeko ■ 743354 ■
Alkoholiko Anonimoak ■ 740385 ■
D.Y.A (anbulantzia) ■ 464622 ■
Gurutze Gorria ■ 743864 ■
Mendaroko Ospitala ■ 756264 ■
Drogomenpekotasun Z ■ 741008 ■
Odo1 Emailak ■ 743936 ■

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak ■ 740442 ■
PESA (Eibar) ■ 112131 ■
Taxi Geltokia ■ 740898 ■

UDALA

Euskara Zerbitzua ■ 744366 ■
Kirol Zerbitzua ■ 744415 ■
Kultura Zerbitzua ■ 742158 ■
Mendaroko Udala ■ 756100 ■
Ongizate zerbitzua ■ 743736 ■
Udaletxea ■ 741050 ■
Udaltzaingoa ■ 741394 ■

BESTELAKOAK

Caritas ■ 740142 ■
IMI ■ 741196 ■
Kontsumo Bulegoa ■ 743088 ■
Liburutegia ■ 743525 ■
Musika Eskola ■ 742145 ■
Mintxeta ■ 744315 ■
Polikiroldegia ■ 741301 ■
Postetxea ■ 741547 ■

HIRUGARREN ADINA


San Lazaro Egoitza ■ 740296 ■
Zaharren Biltokia ■ 740526 ■

IKASTETXEA

Herri eskola ■ 740879 ■
I.M.H. ■ 744132 ■
Institutu tua ■ 740267 ■
Ikastola ■ 744441 ■
L.H.1 ■ 744480 ■
Pilar Ikastebea ■ 741331 ■

KOMUNIKABIDEAK

BARREN ■ 744112 ■
El Diario Vasco ■ 744073 ■
El Mundo ■ 118505 ■
74 22 67 ■
El Correo Español ■ 74 10 82 ■
Egin ■ 118421 ■
Deia ■ 741157 ■



San Pedro Auzoa. Tel: 74 00 10. ELGOIBAR

24 OSTIRALA

19,00 PINTURA ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Egur Arte Lantegia.
Uztailaren 10a arte.

19,30 MAHAI INGURUA

Gaia: Karidadeko alabak
Elgoibarren.

✓ Kultur Etxean

21,30 TRIKITILARI ESKOLAKO
JAIALDIA

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Musika eta Dantza
Fundazioa.

LARUN BATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

Gaia: Programazioa
✓ Kultur Etxean.

18,00 KARATE ERAKUSTALDIA

/ Kiroldegian

Antolatzailea: Olaizaga Karate
Kirok Eskola

19,00 INTSUMISIOAREN
ALDEKO MANIFESTAZIOA

✓ Maalan

Antolatzailea: Talde Antimilitarista

19,00.22,15 ZINEA

"En el nombre del padre"

✓ Herriko Antzokian

Sarrera doan

ixandak

FARMAZIAK:

25, larunbata: Ormazabal

26, igandea: Ormazabal

27, astelehena: Etxeberria

28, asteartea: Etxeberria

29, asteazkena: Etxeberria

30, osteguna: Etxeberria

1, ostirala: Etxeberria

OKINDEGIA:

26, igandea: ZABALETA

IGANDEA

KAIONIDEK.D FILFIEEN /25. UKTELIRRENfi

10,00 TXISTULARIEN DIANA

11,00 MEZA

Parrokiako Koroaren eta Haritz
Euskal Dantzari Taldearekin.
/ Parrokian

Ondoren OMENALDI EKINTZA
Haritz Dantzari Taldeak eta Udal
Txistulari Taldeak Gipuzkoako
Soka dantza eskeiniko dute.

/ Plaza Handian

14,00 BAZKARI HERRIKOIA

16,30 UMEENTZAKO ZINEA

"El retorno de las brujas"

22,15 ZINEA

"En el nombre del padre"

ASTELE HENA

22,15 ZINEA

"En el nombre del padre"

E 11 13 A

En el nombre del padre

Irlanda 1993

Zuzendaria: Jim Sheridan

Aktoreak: Daneil Day-Lewis,
Emma Tompson.

Guilford-eko lau epaituei buruzko
istorioa da. Pelikula 70.

hamarkadaren haseratik abiatzen
da. katoliko eta protestanteen

arteko istiluak gogorrek dira garai
honetan. Bi mutiko irlandar

Inglaterrera joango dira erraz
aberasteko esperantzaz. IRAk

bonba bat jarri du pub militar
batean. Poliziak bi gazteak

atxilotuko ditu errugabeak diren
arren. "Guilfordeko lauak" 15 urte

pasatuko dituzte gartzelan, abokatu
batek polizia ingelesak izkutatzen

duen egia deskubritzen duen arte.

ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"En el nombre del padre"

1 OSTIRALA

22,30 NATHALIAREN
KANTALDIA

"EL Rocio" taldearen laguntzaz.

✓ Herriko Antzokia

SAN JUANAK Altzolan

Hilak 24, ostirala

San Juan eguna

20,00 Trikitilarien kalejira eta
buruhandiak

23,00 Erromeria "Konbi"
taldearekin

Atsedendian "Duo Plaentxi"

Hilak 25, larunhata

San Juan Txiki eguna

11,00 Diana

12,30 Kalejira Trikitilariarekin

15,00 Bazkari herrikoia

18,00 Joku herrikoiak eta
txokolate jana

20,00 Trikitilarien kalejira eta
buruhandiak

23,00 Kontzertua "In
Memoriam" taldearekin

01,00 Erromeria "Konbi"
taldearekin. "Eskoba" dantza

dantzatuko da.

Hilak 26, igandea

13,00 Sardinada

19,30 Futbolin txapelketa

IRU-NABE

ESKABAZIOAK



614bo paoa lasPeblo

SAN PEDRO AUZOA
Lzr 943-74 17 28
ELGOIBAR

LARRANIAGA autoeskola

0 #11 CD 0



Santa Ana 11.rr 74 10 11- ELGOIBAR



lid•t //t ~
alow4exa' aftwma4
9'cU laeme«a
LARRAÑAGA
auma4d.U4
ete ~4.



PAGOAGA S.A.

Iturgintza

D ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



ALATZAILEA,

IG4 baimenarekin,

GAS NATURALA ETA PROPANOA

13 74 02 79 74 05 12

San Antolin Kalea 13. ELGOIBAR